

Eztabaidatu egin da luzaz, eta hona zer erabaki den: garai batez erabaki zena dagoen dagoenean utzi eta heldu den urtean —Arantzazuko Biltzarren hamar urtekari— beste biltzarre batetan gai hori zehazki aztertea.

d) "AHAIDEGO HITZAK":

J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak txosten bat irakurri du ahaidego hitzez, egunoro erabiltzen direnez eta testu zaharretan ageri direnez. Burunda eta Luzaideko lekukotasunak ematen ditu batez ere.

e) "HERRI ETA LUR":

J. L. Lizundia idazkari-ordeak bere txostena irakurri du, "herri" eta "lur" hitzez. Erderazko "tierra" hitzak dituen adiera batzuk euskeraz "herri" rekin esan behar direla, eta ez "lur"ekin adierazi zuen. Adibide ugariak aipatu zituen: "Estelleri", "Deiherri", "Txorierri", "Beterrri"; Nafarroa, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako "Ergoienak"; Bizkai eta Nafarroako "Erbera" eta "Erribera" k; Bizkaiko eta Gipuzkoako "Goierri" ak; "Herriberri", "Marinerri", "Baserri", etab.

f) "BIRRAZTERPEN BAT: "HIKETA" ETA "ZUKETA":

Josu Oregi euskaltzain laguntzaileak joan den hileko batzarrean irakurtzerik izan ez zuen bere txostena, irakurri zuen oraingoan. Kopiaak atereak eta zabalduak zirenez gero batzarkideek beren eritziak emateko aukera ona izan dute.

GAITIK KANPORA:

Imanol Laspiur euskaltzain laguntzaileak, Eibar eta Elgoibarko Institutuetan euskararen egoera azaldu du. Haren ustez, Euskaltzaindiak eskatu behar du gure hizkuntza gero eta gehiago sar dadila programetan, gaur ezer gutxi eten bait da.

"EUSKAL IZENDEGIA" DONOSTIAN AURKEZTEA:

Azkenik, eta bilera ireki moduan, *Euskal Izendegiaren* aurkezpena egin du Satrustegi, batzorde arduradunak, gipuzkoarren aurrean, lehena-go Bilbon eta Gasteizen egin zen bezala. Bihar Iruinean egingo da.

Besterik gabe, bukatzen da batzarra.

## 1977 - VI - 24

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1977ko ekainaren 24an, arratsaldeko 4retan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buru-ordezko, J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, J. M. Satrustegi eta A. Zavala euskaltzain jaunak; J. L. Alvarez Enparantza, I. Berriatua, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, M. Ruiz Urrestarazu, P. Uribarren, A. Zatarain eta J. J. Zearreta laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dela.

Diharce, Irigaray, Larzabal eta Lojendio jaunek ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra. Ondorean, euskaltzainburuak Joanes izeneko euskaltzain guziak zorionduaz.

## a) HAR-EMANAK:

Basauriko Udalaren gutuna irakurri da, euskararen alde hartu dituzten erabakien berri emanez. Agiriak euskaratzeko, euskarazko gutuneri erantzuteko eta euskararen irakaskintzarako Socorro Mateos Gonzalez andereñoa jartzen dute arduradun, 30.000,— pezeta hileroko alogerarekin. Erabaki hoiegatik gure zorionik beroenak agertzea erabaki da.

Hartu diren diru laguntzen berri eman da: Arabako Foru Diputazioak 250.000,— pezeta, Gipuzkoako Ibarako Udaletxeak 2.000,—, Elgoibarkoak 30.000,—, Mondragoeko Ularco S. Coop. enpresak 500.000,— eta Amat S. Coop. delakoak 75.000,—. Guztiei eskerrak ematea erabaki da.

J. J. Zearreta jaunak aurtengo udarako euskara ikastaroak nola eta non eratan direnaren berri eman du: Deustuko Unibertsitatean; Lutzana-Barakaldon; Santurtzen; Bergarako Unibertsitatean; Mundaizko E. U. T. G.n; Donostiako Klaret-tarren etxean; Lazkaoko Beneditarretan; Oinatiko Laterandarretan; Gasteizko Olabide ikastolan; Haguraingo E. S. B.an; Lekarozko Lizenziatuen kolejoan; Iruineko Campion akademian; Bilbon, berriz, "Asociación de Mestros" delakoan, Euskaltegin, Ipes, Errekaldeberri eta Deustuko Zubibarrin.

J. M. Satrustegi jaunak Arabako Foru Diputazioko lehendakariaren izan ditugun elkarrizketen berri eman du. Haurrei euskaraz irakasteko erakunde handi bat gertatu nahi dutela eta erakunde horren burutzarako irakasle baten proposamena egin beharra duela. Batzarkideek E. Knörr euskaltzain eta Arabako ordezkariaren buru dena proposatzea erabaki dute.

P. Uribarren eta J. A. Letamendiak —Irakaslegoaren prestaketarako Bilbo eta Donostiako Unibertsital Eskoletan irakasle direnak— informake-

ta bat eman dute eskola hoietan euskal katedrak sortzeari buruz. Informaketa hori entzun ondoan Euskaltzaindiak Heziera eta Jakintzako Ministeriora jotzea erabaki du unibertsital barruti bakarra eskatuz, lau probintzietako eskolen artean behar den normaleztapena eta koordinaketa lor dadin.

Sitges-en Elebitasunari buruz egin den Symposium-aren berri eman du idazkari ordezkook.

Liburuzainak hartu diren liburuen berri eman du. Beren artean, Rikardo Badiolak bertsoaritzari buruz egin duen tesinaren kopia bat.

#### b) GOIZEKO BILKURAREN BERRI:

Idazkariak eman du goizean euskaltzain osoak izan duten bileraren berri.

Esku-liburu batean Arautegiaren argitalpen berri bat egitea erabaki da.

Arautegiaren azken artikuluak eskatzen duenaren araberez, barne erregelez osatzeaz, Alfabetatze eta Euskalduntze erregelen aurreproietoa zabaldu da, hilabeteko epean ohar idatziak ekartzeko.

EUSKERA aldizkaria sortu zenetik orain arteko aurkibidea egitea da bigarren bilera. Orain arte egin denaren historia labur bat eta aurrerako markatu den idearen berri eman da. J. J. Zearretak agertu du nola eramana-ren plangintza, batzordeko idazkaria den aldetik.

Uztailaren 10ean, Zuberoako Zalgizen, Piarres Lhanderen mendeurrena ospatuko da: 12etan meza, eta ondorean P. Lafitte eta J. L. Davant-en hitzaldiak P. Lhande zenari buruz. Bazkaria Atharratzen izanen da eta bertara joan nahi duenak denboraz eman dezala bere izena.

Baita ere, kontu eman da, uztailaren 24an, Euskaltzaindiko laguntzaile den Iruriko Etxahun (Piarres Bordaçarre) pasturalgileari omenaldia egingo zaiola Atharratzen, inork joan nahi baldin badu.

#### d) EUSKARA HERRIKOIAREN MAGNETOFOI BILKETAZ:

J. M. Satrustegi jaunaren txostena, ahozko hizkera eta literatura jasotzeko zelako urratsak eman behar diren eta alde zurreratik antolaki-zun orokorra nola behar den.

#### e) JOANES LEIZARRAGA-REN LANEZ:

E. Larre jaunak irakurtzen du P. Lafitte jaunaren txostena. Nekez eskura ditezke Leizarragaren lanak eta behar litazke berriz argitaratu. Eta argitaratze berriak nola behar duen adiarazi du. Faksimilez eta azkenean orri eta lerro aipamenez oharra jarriaz.

Lafitte jaun beraren esku uzten da ohar horiek gertatzea, *Testamentu Berria*-ren argitalpen baterako, honek emango dion lana ordainduaz. Hala erabaki da.